

andramaixak • Ondarroa

Afrikako erritmoak andramaixetan

Sin Djembe eta Bidinte taldeen erritmo alaiak eta biziak entzuteko aukera izango da gaur, Afrikar Gauean

Alazne Artetxe | ONDARROA

Aurten, Ondarroako Udalak antolatuta Afrikar Gauea izango da. Bertan, Sin Djembe eta Bidinte ikusteko aukera izango dugu gaur gaueko 23:30ean, Itsas Aurre plazan. Bilbotik etorritako Sin Djembe taldeak perkusioa eta dantzak eskainiko ditu. Ginea Bissauko Bidinte musikaria Madriletik dator.

Kultura eta Jaiak batzordeetako arduradun Jon Iñaki Artetxek azaldu digunez, «Afrikak gauza asko ditu Mendebaldeko kulturari eskaintzeko. Gainera, gure artean afrikar asko daude, eta garrantzitsua deritzot hainbat kulturen arteko harremanei ateak irekitzeari. Hau da, guk eurak ulertzea, eta eurak gu». Izan ere, «elkar ezagutzen badugu, elkar ulertuko dugula uste dut, ezjakintasunaren ondorioz immigrazioari lotuta dauden hainbat arazo baitatoz: arrazakeria, diskriminazioa, esplotazioa...», gaineratu digu Artetxek. Horregatik, aurten Afrikar Gauea antolatzea pentsatu zuten. Bestalde, afrikar musika alaiak «ondo pasatzeko aukera» ematen duela esan digu.

Horrez gain, aurtengo jaietan gure artean bizi eta lan egiten duten etorkinei euren tokia eman nahi izan diete, jaietan gozatzeko eta ondo pasatzeko.

Jon Iñaki Artetxek dioenez, «Radio Euskadiko Gorka Andrakak egiten duen *Mar de fueguitos* irratsaioan Bidinteri egindako elkarrizketa entzun nuen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan berak zabaldu nahi zuen mezua. Esate baterako, Afrikako kultura, etorkinen bizitzaren arazoak, kulturen transmisioa eta zaharreko errespetua. Gauza asko aipatu zituen; balore garrantzitsuak».

Bestalde, Bidinte Banda Ne-



EGUNKARIA

Bidinte eta Sin Djembe taldeekin afrikar doinuen erritmora dantzatzeko aukera izango da, gaur gaueko kontzertuan.

grako partaidea izan zen. Ras-ha, Seydu, Djanbutu Thioassane eta Wafirrekin batera osatu zuten Banda Negra. «Taldea hau musikari onez zegoen osatuta, eta hori garrantzitsua izan da Bidinte aukeratzeko», gaineratu du Artetxek.

Bidinte

Fernando Jorge Da Silva, Bidinte, Madrilen finkatuta dagoen musikaria da. Bolaman jaio zen, Ginea Bissauko antzinako hiriburuan. Hamaika urte zituenean mandolina bat aurkitu zuen portugaldarrek abandonatutako etxe batean. Hala, bere lagunekin batera *gumbe* musika tradizionala hasi zen jotzen.

EGITARAUA

GAUR

09:00: Pregoia, kalez kale. Eguneke jai egitaraua jakinarazten.

09:00: Marmitako Lehiaketa, Kofradia aurrean.

10:30: Txistularien kalejira, kalez kale. Herriko Txistulari Taldearekin.

11:00: IV. Bizikleta Gynkama, Itsas Aurre plazan.

12:00: Koadrilen kalejira, kalez kale. Kiroldegitik Itsas Aurrera.

15:00: Koadrilen bazkaria, Latxanbre plazan.

16:00: Koadrilentzako jokoak, alde zaharrean. Liorreko antzar jokoak.

18:00: Herri kirolak, Udaletxeko frontoian.

18:00: Bertsolariak: Jon Maia, Anjel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazu bertsolariak eta Iparraldeko jokoak.

18:00: Euskaraokea izango da, Musika plazan.

18:30: Futbol partida, Zaldupe futbol zelaian. CD Aurrera-Real Union.

19:00: Kale Animazioa, kalez kale. Trikitilari eta dultzaineroak.

20:00: Kale antzerkia, alde zaharrean. Trapu Zaharra taldearen *Laugarren tenorea* antzezlanak.

20:00: Koadrilek sariak banatuko dituzte, Musika plazan.

23:00: Dantza saioa, Itsas Aurre plazan. Ondarroako Ballet Eskolaren saio berezia izango da.

23:30: Afrikar Gauea, Itsas Aurre plazan. Sin Djembe eta Bidinte.

02:00: Haragan eta konpainiaren kontzertua, Arrigorri begiratokian.

Bere herriko musika entzun eta bere kabuz ikasi zuen, nahiz eta musikako ezagutzarik ez izan.

Bere aitak ez zuen nahi semea musikaria izatea, bera bezala sendagilea baizik.

Afrikar musika arloan aurrea egitea zailagoa zenez, Portugalera joan zen. Han, Justino Delgaldorekin batera Docolma taldean hartu zuen parte. Taldea banatu ondoren, Madrilerak heldu zen eta flamenkoarekin txundituta gelditu zen. Bertan, *Kumura* eta *Iran di fankaes* lanak kaleratu ditu.

Afrikar Gauean perkusioa eta afrikar dantzak ezagutu ahal izango ditugu Sin Djembe eta Bidinte taldeekin.




"Zeuk, zure zerbitzura egiten duzun Ikastola"

Ibai ondo kalea, 15
Tel.: 94 683 14 16



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu !!

BULEGOA/LANTEGIA
Mutrikuko Industrialdea, 15. zb.
61 P.k. - 20830 MUTRIKU
Tel.: 34 (9)43 - 19 51 22
Faxa: 34 (9)43 - 19 51 25



Andramaixak ondo pasa !!

MATRIKULA
Irailaren 16tik 27ra

Artabide, 23
Tel.: 94 613 41 14
ONDARROA



OGI BEREZIAK: ZENTENO, FIBRAK, SOJA, PLUSMINUS,...
GOZO BEREZIAK: TRUFA, SELVA NEGRA, SANTONORE,...

Iñaki Deuna kalea, z/g
Artabide, 24
94 683 30 60
94 683 19 14
ONDARROA-Bizkaia